5.5 DBH 4. Mailako ikasleei Bihotz Birika Bizkortzea erakusteko osasun arloko profesional eta ikasleen arteko elkarlaguntza proiektua

ZAMAKOLA IBAIBARRIAGA, A[1]; ALONSO MORENO, D[1]; GARMENDIA TOLOSA, T[1]; IBARGUREN OLALDE, K[1]; UNANUE MUNDUATE, T[1]; GAYANGOS MACHADO, A[2]; MALVAR GONZÁLEZ, S[2].

1.– Osakidetzako Emergentziak. 2.– Gipuzkoa Anbulantziak Koop.Elk.



SARRERA

Bat-bateko heriotzak (BBH) EAEko heriotza guztien %30 izaten dira, gutxi gora behera. BBH jasaten duten pertsonak bizitzarekin lotzen dituen ekintza-multzoa biziraupen katea bezala ezaguna da.

Biziraupen kate honen 3. eta 4. kate-begiak indartzeko, administraziotik neurri ezberdinak hartu izan dira, hala nola Kanpo Desfibriladore Erdiautomatikoen (KDE) erabilera zabaldu eta erraztea edo Bizi Euskarri Aurreratuen gehiagotzea (BEA). Aldiz, lehen eta bigarren kate-begiak indartzea gertaeraren lekukoaren esku daude, eta hau hobetzeko Bihotz-Biriketako Bizkortzean (BBB) formazioa oinarrizkoa da, dauden errekurtsoak aprobetxatuz eta modu eraginkorrean jende kopuru handienari ailegatuz.

HELBURUAK

Laerdal® etxeko Mini-Anne® autoformaziorako kit-a erabili ondoren, DBHko 4. mailako ikasleek BBBri buruz duten ezagutzaren hobekuntza zein mailatan ematen den neurtu nahi izan dugu.

Bide batez, formazio mota hau DBHren kurrikulumean sartzeko aukera neurtu eta biztanleriaren biziraupenean eragina izan dezakeen eskala handiagoko esku-hartzea testatu nahi izan dugu.



METODOAK

2008ko iraila eta 2010ko urtarrila artean eginiko ikerketa prospektibo bat izan da. Osasun Sailak 5.000 kit erosi eta Emergentzak-i eman zion proiektua aurrera eramateko ardura.

Medikuntza eta Erizaintza eskolatan boluntarioak eskatu ziren eta bitartean, EAEko eskolekin jarri ginen kontaktuan, parte-hartzaileak eskatuz.

Emergentziak-ek medikuntza eta erizaintza ikasleak prestatu zituen, sistema hau nola erabili eta beharrezko erremintak erakutsiz. Aldi berean aukeratutako eskolatako irakasle-multzo bat formatu zuen. Eskoletara kit-ak eta gaiarekin lotutako 26 galderatako galdetegi bat bidali zen.

Osasun-arloko ikasle bat eskolara heldu eta irakaslearekin batera galdetegia pasa zuten, gero, kit-ean datorren bideoa erabilita, eskola praktikoa emanez.

Bukatzean, ikasleek kit-a etxera eraman zuten, bertakoei erakusteko eta horrela formazio hau modu esponentzialean hedatzeko.

Eskolei aurreko galdetegi bera berriz ere pasatzeko eta Emergentziak-era bidaltzeko eskatu zitzaien, beti ere 6 hilabeteko epe barruan.



EMAITZAK

- Erizaintza eta Medikuntzako 234 ikaslek jaso zuen prestakuntza
- 52 ikastetxe: 110 irakasle eta DBH 4. mailako 2.039 ikasle.

- GUZTIRA: 234 + 110 + 2.039 =2.383 pertsona formaturik.







LEHEN FROGA

nota_pre

Sexua	Batazbeste	N	Desv. típ.
Emak.	5,5505	1040	1,26310
Gizon.	5,2422	999	1,37627
Guztira	5,3994	2039	1,32841

BIGARREN FROGA

nota_post

Sexua	Batazbestekoa	N	Desv. típ.
Emakumezkoak	6,3118	588	1,36935
Gizonezkoak	5,9091	556	1,45234
Guztira	6,1161	1144	1,42399

ALDEA

diferencia

Sexua	Batazbestekoa	N	Desv. típ.
Emakumezkoa	,6932	588	1,38852
Gizonezkoa	,5348	556	1,53360
Guztira	,6162	1144	1,46234







Saiakuntza honen bitartez kit honek, eskola orduetan, modu egokian prestakuntza emateko balio duela frogatu dugu.DBHko 4. mailako ikasle hauetan, prestakuntza egin aurreko eta egin ondoreneko ezagutzan ezberdintasun esanguratsurik dagoenik ezin izan dugu frogatu. Saiakuntza berriak egitea gomendatzen dugu beste adin-tarte batzuekin.